

BURUKETA ARINAK A

- 1) Jostailua ordaindu dut 5 €ko 4 billeteekin. Zenbat € ordaindu ditut?
_____ EURO
- 2) Pedrok urte batean 350 € aurreztu ditu eta arrebak bikoitza. Zenbat aurreztu ditu arrebak?
_____ EURO aurreztu ditu arrebak.
- 3) Lehenengo poltsan 12 gaztaina daude. Eta bigarren poltsan lehenengoan baino 7 gehiago. Zenbat gaztaina daude bigarren poltsan?
_____ gaztaina
- 4) Egin 3 aldiz handiago 25 zenbakia.

- 5) 12 madari ditu, baina laurdena hondatuta daude. Zenbat madari daude hondatuta?
_____ madari hondatuta
Zenbat madari on geratzen dira?
_____ madari on .
- 6) Gozoki kilo batek 3 € balio baditu, zenbat kostatuko zaizkit 4 kilo gozoki?
_____ euro.
- 7) Zenbat egun daude 2 astebetetan?
_____ egun
- 8) Zenbat sagar dira 3 dozena sagar?
_____ sagar
- 9) Zenbat ordu dira 8 ordu laurden?
_____ ordu
- 10) Jeniferrek 13 urte ditu eta ahizpak 7. Zenbat alde dago bien artean?
_____ urte